

# HERNANIK kronika

2003 urtea  
Martxoak 21  
Ostirala  
Alea: 724  
[www.hkronika.com](http://www.hkronika.com)

## “Ez det onartzen Egunkaria itxita egotea”

■ Pello Zubiriaren ustez Egunkaria itxita dagoela onartzea, epaileari arrazoi ematea da azkenean ■ Es-kertu du jasotako laguntza eta elkartasuna, eta uste du euskal gizarteak ‘pagina pasa’ beharra daukala.

**PELLO Zubiria otsailaren 20an atxilotu zuen Guardia Zibilak Egunkariaren kontrako operazioan, eta asteazkenen goizaldera iritsi zen etxera, 12.000 euroko fian-tza ordainduta. Zubiria izan zen Euskaldunon Egunkariako aurreneko zuzendaria, eta gaur egunean Argi-ako zuzendari kide da. KRONIKAk bere iritzi eta errelexioak bildu ditu.**

Pello Zubiriak aitortu du ‘aterrizatzen’ ari dela eta margen horrekin transmititu nahi ditu bere analisiak.


■ **KRONIKA: Zure osasun egoerak kezka haundia sortu du. Nola zaude?**

PELLO ZUBIRIA: Gaixotusun kroniko bat daukan 45 urteko gizon bat egon liteken bezala. Nere gaixotasunarentzat baraua egitea ona da, eta ar-galduta eta ahal nago, baina, dezente ondo.

■ **Epaileak ETArekin lotu zaituzte eta dio Egunkaria ETAreren zerbitzura zegoela. Egunkariako aurreneko zuzendaria zerorri izanda, zer duzu esateko?**

Nik badakit Egunkaria nola egin zen, beste jende askorekin batera, ni ere tartean nitzelako. Egunkaria Sortzen elkartean Euskal Herriko 40 notable bildu genituen, sortu nahi zen egunkariaren zabaltasun eta independentziaren garantia gisa. Gero, garantia horren gainean egin zen diru bilketa herriean, enpresetan eta abar.

Guk badakigu gauzak nola izan diran eta gezur haundi bat da Egunkariaren sorreran ETA atzean zegoela. Ez daki-dana da gezur hori non koka-tu. Paper batzuk azaldu dira, izen batzuk. Orain dela 10-12 urte ere azaldu ziren paper ho-rieik, eta nik Audientzia Na-



Pello Zubiriak Egunkaria zabaldu egin behar dela aldarrikatu du.

zionalean gestioak egin nituen hori dena gezurra zela fro-gatzeko. Politiko bat, Joseba Egibarri, kereila bat ere jarri nion akusazio bera egin zida-lako eta atzera egin zuen.

■ **Nolakoa izan da atxiloketa eta inkomunikazioa?**

Hernanin gauza horietaz hitz egiteak pudorea ere ematen dit. Hemen denok dakigu Guardia Zibila zer den eta nola jokatzen duen. Zer esplikatuko det jendeak ez dakenik. Ikaragarria izan da, bai neretzat eta baita familiarentzat ere.

Nere kasuan, behar bada, gauza konplikatu egin zen. Hasieran, nik ez neki kon-tua nondik zioan. Gero, Egunkarian elkarrekin lanean ibili ginen lagunen antiak eta

negarrak somatu nituen, eta hor erori egin nitzen. Neri bu-ruzko zenbait albiste zabaldu da, baina, ez nago horrekin obseesionatuta.

Bestalde, uste det Mar-txelo Otamendik nolabait bere gain hartu duela tortura salatza eta oso lan ona egiten ari da. Nere babes osoa du.

■ **Zer deklaratu duzu epailearen aurrean?**

Hemen esaten ari naizen be-ra. Nik beti defendituko det akusazio hori gezurra dela.

■ **Zein klabetan interpre-tatu behar da operazio poli-zial hori?**

Operazio horrek gauza bat baino gehiago harrapatu di-tu. Euskalgintza ikuitzen du, Jaurlaritza ikuitzen du, Iba-rretxe plana ikuitu du, PNV

ikuitu du eta abertzale ez direnak ere ikuitu ditu. Euskal Herrian arazoa konpon-tzeko ahalegin bat dago eta operazio horrek hori lehertu nahi du. Hala ere, iruditzen zait operazio hori diseinatu duenak badakiela hemen ez gerala kapaz pagina pasa eta elkar hartzeko. Madrilaren jendeak uste du denok bat gerala eta hemen 86an bezala gaude. Pagina pasa beharra daukagu urgente, eta jende berriari utzi lekua. ETAK borroka armatu-aren pagina pasa beharko du, guk beste pagina pasa beharko dugu, PNVk ere berea eta abar. Saio batzuk egin dira eta ez dira ondo atera, baina, be-riz saiatu beharra dago.

■ **Zein egoeretan gelditu da euskerazko prentsa?**

Nik zortzi egunetara jakin nuen Egunkaria itxi zutela eta ezin nuen sinistu. Eta oraindik ere nik ezin det onartu Egunkaria itxita egotek.

Jendea egunkari berria sortzeaz ari da hizketan, eta ni ez nago horren kontra. Baina, Egunkaria Egunkaria da eta ez beste ezer, eta modu ez-legal batean itxi egin dute. Hainbeste jendek hain-bestete urtean hainbeste lan eginda, orain, gezur haundi bategatik onartu egin behar degu Egunkaria itxita dagoela? Onartzea azkenean epaileari arrazoi ematea da eta zeure buruari onartzea galdu egin dezula. Eta nik behintzat ez det hori onartzen. Gainera, badakigu egunkari bat egitea zenbat kostatzen den eta erre Kurtsoak ez dira bukatzan ez direnak.

■ **Erantzun konkreturen bat eman behar litzatekeela uste duzu?**

Nere ustez Euskal Herrian pagina pasa beharra daukagu. Iruditzen zait badagoela horretarako gogoa. □

### SAGARRONDOTIK

**Raimundo Amador,  
Desmond Dekeer eta  
La Polla gaur**

RAIMUNDO Amador, Desmond Dekker, Fundacion Tony Manero, La Polla eta Gatibu taldeen kontzertua dago gaur 22:30etan Txantxilan, Sagarrondotik ekimenaren barruan. Asteburuko ekitaldien aurkezpena 21:30etan Gudarien plazan, eta dantzak eta akelarrea izango dira.

Aurretik, arratsaldeko 18:00- etan, berriz, lanerako voluntarioen bilera dago Biterin.

Ekitaldia dela eta zenbait trafi-ko aldaketa ere izango dira asteburu-an. Kontzertuetako karpa Txantxillan dago, eta beraz hor aparka-tzerek ez dago, eta herrira kotzez bertakoak bakarrak sartuko dira gaur, 21:30etatik 05:30etara. Aka-regiko rotonda berritik Portu aldera edo Zinkoeneara bideratu-ko dituzte herriarrok udaltzainek, eta Sorgintxulotik sartzen denak ere Zinkoeneara joan beharko du. Axalako sarrera itxita egongo da eta Elcano kaletik Izpizua kalean behera joan liteke bakarrik.

Bestalde, kirolegian bi pistak itxita egongo dira gaur arratsalde-lik astelehenera. Frontoia eta gim-nasioa gaur 19:00ak arte daude irekita. Igerilekua, berriz, irekita egongo da asteburu-an. Baina, bi-har, 11:00etatik aurrera egongo da zabalik publikoarentzat. □

**Andragoton osasunari  
buruzko hitzaldia**

‘GURE osasuna noren eskutan?’ hitzaldia emango du gaur Eneko Landaburu higienistak Andragoto ateneoan. Gaur 19:30etan. □

### MUSIKA ESKOLA

**Berako musika eskolaren  
kontzertua, apirilean**

BERAKO musika eskolako ikas-leek zuten kontzertua emateko a-gaur Hernanin, baina, azken orduko arazoak medio apirilaren 11 ra atzeratua da. □

**SAGARDO NATURALA**  
Hernaniko Sagardoa



**OTSUA-ENEA**  
Osiñaga auzoa • Tel. 943 55 68 94 • HERNANI

**AMAIK  
ARRAINAK  
ITSIASAK  
FRESKO ETA  
IZOZTUAK**

Kardaberaz 34  
Tel. 943 55 07 52  
943 55 22 11  
20120 HERNANI

**BASERIKO SAGARDOA**  
  
**Goiko Lastola Sagardotegia**  
Eguerditan ere irekita

Sagardogintza mantendu duten baserritarren omenez.

EREÑOZU AUZOA  
TEL: 943 55 3272  
HERNANI

## Udalak web orria egin du “informazioa herritarrei errazago zabaltzeko”

UDALAK web orria martxan jarri du [www.hernani.net](http://www.hernani.net) helbidean. Mertxe Etxeberria alkateak Kronikari esan dioenez bi helburu nagusiak dira: 1) Udal herritarrei hurbiltzea, teknologia berrien bidetik; 2) Orain orri informazioa izan arren etorkizunen herritarrei zenbait gestio internet bidez egiteko aukera ematea.

### Informazio estatiko eta dinamikoa

Web orrian informazio estatikoa eta dinamikoa daude Jose Ramon Etxaniz udaletxeko informatika teknikariak Kronikari esan dionez. Informazio estatikoa bi saihetsan egongo da eta Udal zerbitzu bakoitzari buruzko informazio orokorra da. Informazio dinamikoa web



Mertxe Etxeberria Alkatea eta Jose Ramon Etxaniz.

orriko erdiko trontzoan dijioa eta 4 zatitan banatua dago: 1) Irudiak eta argazkiak; 2) Udaleko berriak (erabakiak...); 3) Ekintzak (kontzertu, antzerki...); 4) Abisuak (liburutegiko ordutegi aldaketak, obragatik kaleren bat itxita da goela eta abar).

Alkatearen hitzetan hau hasiera da, baina, web orriari benetan etekina ateratzeko Udaletxeko funtzionamentua poliki poliki horretara egoikitzen joan behar da eta Udaleko zerbitzu eta sailak koordinatzen lan haundia egin behar da. □



Porrotx zinta mozten, ume eta gurasoak begira eta atzean merienda noiz jaten hasiko zain.

**Marieluts berria inauguratu dute.** Marieluts haur eskolan zenbait obra egin berri dituzte: sukaldia eta jangela haunditu, komonak jarri eta berritu, sarrera berritu eta abar. Atzo inauguratu zuten, eta Porrotx pailazoia izan zen ate berriko zinta moztu zuena eta umeen poza. Marieluts Udalaren esku dago eta gaur egun 60 bat ume eta 9 irakasle ditu. □

### JASOTA BEZALA

Joan den ostiraleko Hernaniko Kronikan *Hernanik Bere Eskola* taldearen izenpean lanbide heziketa euskalduntzeko ohar bat zetozten. Artikulu hau irakurtzean gure harridura azpimarratu nahi dugu, oso bitxia baita talde honek eman digun erantzuna guk orain arte egindako harrerarekin. Hala ere, gauzak bere tokian utzi nahi ditugu: egun zazpi heziketa ziklo dauzkagu, horietatik lau D eredu eta hiru A ereduan, horrek suposatzen du D eredu % 57a eta batxilergoaren % 100a, baina, zoritzarrez zenbakiek manipula daitezke norberak nahi duen in-

teresen arabera.

Dena den, garrantzitsuena ez da Heziketa-zikloetan D eredu % 57a izatea, epe motzean guztiak euskalduntzeko asmoa adieraztea baizik. Horretarako plangintza egin dugu Buruntzaldeko beste Lanbide Heziketako ikastetxeek ez bezala. Plangintza hau talde honi eta Udaleko Euskara Zerbitzuko arduradunari eman zaio. Are gehiago guk egindako plangintza hartan 2006garren urtean heziketa-ziklo guztiak euskaraz izango genituzke, baina ikusirik beharra agian haundiagoa dela, datorren urtean heziketa-ziklo guztiak

euskaraz jartzeko asmoa dugu, baldin eta ikasleek hala eskatzen badute. Baina benetako arazoa hor dago ikasle askok A eredu aukeratzen duela lanbide heziketa hautatzeko garaian. Arazo honi aurre egiteko ekimenez bete beharrean programa, Buruntzaldean euskalduntze prozesu hoberena eman duen ikastetxearen kontra jartzea ez da logikoa.

Mila esker zuen laguntzarenagatik baina guk gure Iparra zein den badakigu.

**Patxi Apezetxea**  
Hernani Institutuko Zuzendaria

### ESKOLA KIROLA

Futbola	Taldeak	N o n	N o iz
Neska alebinak	Langile Elizatxo	Zubipen	B har11:00
M util alebinak	Elizatxo A -Langile B	Zubipen	B har09:00
M util alebinak	Elizatxo B -Langile C	Zubipen	B har09:00
M util alebinak	Urumea B -Urumea A	Zubipen	B har10:00
M util alebinak	Langile A -hm aculada	Zubipen	B har10:00

### ASTEBURUKO PARTIDUAK

Saskibaloia	Taldeak	N o n	N o iz
Infantilak	Langile A Ipareta A	Donostia	B har10:30
Igeriketa	B enjam in guztiak ikerketa probak diuzte bhar09:00etan ikerkuan		

### HITZ BITAN

#### ✓ LANGILE IKASTOLA

**Bulgaria eta Danimarkako dantzak gaur.** Langile ikastola Comenius proiektuaren barruan dago azken bi kurtoetan, ikasleek herrialde desberdinak ezagutzen helburuarekin. Proiektuaren izenburua da *Denok gara desberdin baina gauza askotan antzeko gara*. Lehen hezkuntzako 5 eta 6 garren mailako eta DBHko 1 eta 2 mailatako ikasleak daude proiektuan sartuta, Bulgaria Drita eta Danimarkako Sennels eskoletako ikasleekin batean. Aurten, orain artekoan, Bulgaria eta Danimarkako dantsa eta kantak ikasten ari dira eta gaur jaialdi bat egingo dute hiru ikastetxeetan batera. Jaialdiaren helburua da Bulgaria eta Danimarkari buruz ikasitakoa ikastetxeeko beste ikasleei eta herriko jendeari ezagutaraztea. Gaur 15:30etan Langile ikastolako Sta Barbarako eraikineko kanpokaldean.

Bestalde, Langileko bi irakasle Bulgaria eskolan egon dira klaseak ematen, eta datorren astean Danimarkako bi irakasle datozen Langilera klaseak ematera.

#### ✓ UR MIA ELKARTEA

**Mus Txapelketarako inskripzioa zabalik.** Ur Miako mus txapelketarako inskripzioa zabalik dago apirilaren 13 arte. Bikoteko 10 euro ordaindu behar da izen ematea.

#### ✓ EREÑOTZU

**Sanantonioak antolatzeko bilera gaur.** Ereñotzun bilera egingo da gaur, ostirala, Sanantonio jaiak antolatzen hasteko. Bilera arratsaldeko 20:00etan da ikastola zaharrean.

#### ✓ BERTSOLARITZA

**Xabier Legarretak, Txapelketako saioa bihar.** Xabier Legarreta bertsolariak Nafarroako txapelketako semifinallean kantatuko du bihar. Hiru semifinalatik azkenengo da biharkoa eta hor erabakiko da finalerako zortzikotea. Aranoarrak etxe ondoan kantuko du, saioa Goizuetan baita. Legarretarekin batera kantuan arituko direnak: Silveira, Olaetxea, Artetxe, Saragueta eta Ibarra. Saioan aurrena gelditzen dena finalera pasako da, eta gainerakoek puntuazioren zai beharko dute. Finalean zortzi izango dira: aurreko bi semifinalatik Sustrai Colina eta Amets Arzallus zuzenean daude sailkatuta, biharko irabazlea ere zuzenean pasako da eta gainerako bostak puntuen arabera sailkatuko dira. Biher saioa, 18:00etan, Herriko etxeko aretoan.

#### ✓ GAZTE TXOKOA

**Hitzaldia emakumea eta sexualitateari buruz.** Miren Telleria sexologoak hitzaldia emango du gaur Gazte Txokoan: *Emakumea eta sexualitatea*. Hitzaldia arratsaldeko 18:00etan da.

#### ✓ IRAK

**Kontzentrazioak gerraren kontra.** Europako Sindikatuen Konfederazioak antolatuta, kontzentrazioa egingo da gaur Donostian, USAk eta beste zenbait naziok Iraken kontra hasi duen gerra salatzeko. CCOO sindikatuak kontzentrazio horretara joateko deia egin du. Kontzentrazioa 12:00etan da, Pio XII plazan.

#### ✓ AUTODETERMINAZIORAKO BILGUNEA

**Manifestazioa gaur Hernanin.** AuB-k mobilizazioak deitu ditu gaur eta biharko *Euskal Herria aurrera* leolarekin. Gaur manifestazioa izango da Hernanin, 20:00etan plazan eta larunbatean manifestazio nazionala 17:30etan Bilbon. Hernanitik autobusak aterako dira 15:30etan. Txartelak Garinen daude salgai. □

### ZERBITZUAK

#### ► TELEFONOAK

► Taxiak:	943 550093
► Udaltzaingoa:	943 333288
► DYK:	943 464622
► Autobusak:	943 556662
► Anbulatorioa:	943 006666
► Jokalari anonimoak:	943 331103

#### + FARMAZIAK

► Egunez:	Bulnes
	Florida auzoa
☎	943 557738
► Gauzez:	Urbistondo
	Lasarte. San Francisco 1B
☎	943 366567

### IRAGARKI MERKEAK

Emakume batek etxeko lanak egingo lituzke goizetan. (Informe eta erreferentziekin). Deitu: **699 14 92 85**

Latina erakusteko irakaslea behar dut, Batxilerra egiten ari den ikasle batentzat. Deitu: **943-552173**

Pertsona bat behar da umeak zaintzeko. Deitu: **943 33 30 56 - 656 73 55 12**

Neska bat behar dugu umeak zaintzeko, 8:00etatik 17:00etara. Deitu: **943 55 37 66 (Arratsaldeko 20:00etatik aurrera)**.

Neska bat behar da jetetxe batean berribitzen lana egiteko. Kotxa beharrezkoa. Deitu: **667 20 87 02 (Arratsaldeko 18:00etatik aurrera)**